


2013

LANALDI – Lanetan Blai!

PARTE HARTZEN DUEN PROFESIONALARENTZAT INTERESEKO INFORMAZIOA DUEN DOKUMENTUA



Antolatzailea:



empleo, emprendizaje, futuro

Novia Salcedo Fundazioa

2013/09/02

LANALDI 
etan blai!

Novia Salcedo Fundazioa

Novia Salcedo Fundazioaren helburua gazteei gizartean eta lan munduan sartzeko prozesuan laguntza eskaintzea da. Horretarako, pertsonen, enpresen eta erakundeen eta erakunde publikoen artean balioa trukatzeko eredu berriak sortzen ditu, eta Lanaldi programa horren adibide bat da.

Zer da LANaldi. Lanetan Blai!?

Lanaldi 2013ko irailetik 2014ko martxora Euskadin garatuko den programa da, Batxilergoko 1. mailako eta ikastetxeetako ikasleen zein profesionalen, enpresen eta erakundeen partaidetzara bideratua, boluntariora korporatiboaren bitartez.

Bere xedea Batxilergoko 1. mailako ikasleei lanerako orientazioa eskaintzea da, goi mailako ikasketak aukeratu aurretik.

Programak jardura nagusi hauek aurkezten ditu 2013. urterako:

- **1. ekintza** – Gaitasun profesionalen garapenerako tailerrak, aldaketarako eta ideia berrietarako prestatuta dagoen belaunaldi bati dagozkion trebeziak eta balioak garatzeko asmoz, arriskua eta akatsa ikasketa prozesu barruko zerbait gisa hartuz.
- **2. ekintza** – Profesionalen ondoan egotea beraien jardura profesionaleko jardunaldi batean, zientzia-teknologia alorrean arreta berezia jarritz.
- **3. ekintza** – 2. ekintzari buruzko esperientziak trukatzeko tailerrak eta bisitaturiko erakundeen eta lanbideen negozio eredu azterketa.

PROGRAMAREN 2. EKINTZAN PARTE HARTZEN DUTEN PROFESIONALAK

Zer lortu nahi da egitasmoarekin orokorrean?

Gazteei hezkuntzaren eta trebakuntzaren garrantziari buruzko ikuspegi berria **eskaintzea**, beraien etorkizun profesionalerako alternatibak erakutsiz, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren alorretan, batez ere.

Ikasleak lan munduak dituen aukeretan eta exigentzietan **murgiltzea**, XXI. mendeko profesional gisa behar duten trebakuntzarako prestatuz. Ikasleen esku, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ikuspegi dinamikoa eta erakargarria eskaintzen duten esperientziak eta tresnak jarritz.

Sormena, berrikuntza, arriskuak hartzea, jarrera proaktiboa, planifikatzeko eta kudeatzeko trebezia... bezalako gaitasunak **garatzea**

Hezkuntza munduaren eta mundu profesionalaren arteko tarteak **laburtzea**, zientziaren eta berrikuntzaren irudi hurbilagokoa eta egunerokoagokoa eskainiz.

Zer eskatzen zaie profesional boluntarioei?

Profesionalek protagonismo handia dute programako 2. ekintzan. Lan jardunaldi batean, egun horretarako programatutako jarduera guztietan parte hartuko duen ikasle bat hartuko dute.

Horrela, gazteei hezkuntzaren eta trebakuntzaren garrantziari buruzko ikuspegi berria ematen zaie, beraien etorkizun profesionalerako zenbait alternatiba erakutsiz, ikasleak lan munduaren aukeretan eta exigentzietan sartzen dira, XXI. mendeko profesional gisa behar duten trebakuntzarako prestatuz.

Programaren ideia, gazteari lan jardunaldi tipiko bat erakustea da, baina sektoreari buruzko ikuspegi orokorra emanez, etorkizuneko aukerak erakutsiz, eta, ahal den neurrian, hezkuntzaren eta lana burutzearen arteko lotura ezarriz. Halaber, amestutako helburuak lortzeko esfortzuaren eta lanaren kulturak duen balioa azpimarratzea ere bilatzen da.

Zuen lana erabat garrantzitsua da! Programaren arrakasta, ikaslearekin egindako lanean jarritako interesaren, maitasunaren eta dedikazioaren arabera izango da neurri handian.

Hasi aurretik

Gaztea esleitu ondoren (urriaren 16tik aurrera), zurekin harremanetan jarriko da, zure helbide elektronikoaren bitartez, bion artean topaketaren eguna ezartzeko.

Ez ahaztu aukeratutako eguna www.noviasalcedo.es/lanaldiconfirmacion web gunean sartu behar duzula, topaketa gauzatzen dela egiaztatu ahal dezagun.

Oso garrantzitsua da zure postontzia txekeatzea, eta azaroaren 4an komunikaziorik egon ez bada, Fundazioari jakinaraztea.

Posta elektronikoz egindako lehenengo harreman horretan oso garrantzitsua da ikasleari jardunaldiaren alderdi garrantzitsuenak jakinarazteko, ordutegia, jarduerak eta plan orokorrak, besteak beste.

Komenigarria izango litzateke zuk ere zure burua aurkeztea eta informazioa partekatzea, ikasleari giro lasaia sentitzen laguntzeko, erosoago senti dadin, galderak egiteko orduan.

Antolatu egun horretarako agenda ikasleari eskaini beharreko arreta eskaini ahal izateko.

Egun horretarako diseinatuko dituzuen jardueren, eta lanbidearen “zirrikituak” transmititzeko gaitasunaren arabera, ikaslea bere etorkizunari buruzko ideia argiagoekin itzuli ahal izango da ikastetxera.

Gogoratu programaren helburua gazteari lan egun tipikoa nolakoa den erakustea dela, gazteari lan jardunaldi tipiko bat erakustea da, baina sektoreari buruzko ikuspegi orokorra emanaz, etorkizuneko aukerak erakutsiz, eta, ahal den neurrian, hezkuntzaren eta lanaren arteko lotura ezarri.. Halaber, esfortzuaren eta lanaren kulturak amestutako helburuak lortzeko duen balioa azpimarratzea ere bilatzen da.

Ez da enpresara egingo den bisita gidatua, baina posible izango litzateke jardunaldi horretan beste departamentu batzuk erakustea.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Egun zehatza (azaroaren 4tik abenduaren 5era) eta jardueraren ordutegiak parte hartzen duen ikaslearen eta profesionalaren artean definitu beharko dira.

Kontuan izan behar da ordutegi profesionalak ez datozela bat ezinbestean ikastetxeko ordutegiekin, eta, ondorioz, malgutasuna eskatzen dizuegu, ordutegietara egokitzeko.



JARDUNALDIRAKO IRADOKITZEN DEN ESKEMA

Argi dago programak aldaketak jaso ahal izango dituela, lanbide bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik.

- 10.00etan – ikaslea iristea
- 10.20etatik 14.00etara – profesionalak programatutako jardueren garapena.
- 14.00etan – bazkaria
- 15.30etatik – 17.00etara – profesionalak programatutako jardueren garapena
- 17.00etatik – 17.30etara – amaierako bilera eta jardueraren ebaluazioa.

Amaierako ebaluazio bileran egitasmoari buruzko gogobetetze galdetegia bete beharko duzue. I. eta II. eranskinetan galdetegi ereduak ikusiko dituzue, bat ikaslearentzat eta bestea profesionalarentzat. Bakoitzak dagokiona bete beharko du, eta ondoren profesionalak biak bidaliko ditu Fundazioaren fax zenbakira: 944240809.

Gogoratu programaren helburua ikasleek lanbidearen “zirrikituak” ezagutzea dela. Ez da enpresara egiten den bisita gidatua. Landu beharreko gai garrantzitsuenak hauek dira:

- Garapen profesionalerako oinarritzko gaitasunak, pertsonalak zein profesionalak.
 - Niri dagokidan lanean
 - Nire lan kooperatiboan eta besteekin izan beharreko erlazioan.
 - Nire gogoeta edo ikasketa lanean
- Nire lana antolakuntza/departamentu prozesu baten barruan eta hori, aldi berean, erakundearen barruan.
- Lanbidearen alderdi garrantzitsuenak.
- Erakundearen, sistemaren, alderdi garrantzitsuenak.
- Ahalik eta lan dinamika errealearen antolakuntza, lan talde barruko bilerekin, bezeroekin edo beste departamentuekin egin beharreko bilerekin, bulegotik kanpo dauden proiektu jakinei bisitak eginez.

Eta jakina, ez ahaztu zuen lankideei programari eta egun horretan bizi izango den egoerari buruzko informazioa ematea/gogoratzea. Beraien konplizitatea bilatu eta iradokizunak jaso ditzakezue!

BAZKARIA ETA LANTOKIRA JOATEA

Komenigarria da bazkariaren xehetasunak aurretik prestatzea, alderdi hori zuen kontura izango da eta. Ona izan daiteke bazkariaren ordua programaren zeharkako alderdiak lantzeko erabiltzea. Ikaslearen helburuak, ikasketa orduetatik kanpo egiten dituen jarduerak, boluntariotza jarduerak, zaletasunak, bokaziozko interesak... horiek guztiak lanbide bat aukeratzeko orduan bideratu daitezkeen modua aztertzen ahaleginduz.

Joan-etorriei dagokienez, komenigarria izango litzateke profesionalek erraztasun guztiak ematea ikasleei, zuen lantokira heltzeko. Batez ere, garraio publikoa erabiliz heltzea hain erraza ez den enpresen eta erakundeen kasuan, oso seinaleztapen onik ez duten industriguneetan edo teknologia elkartegietan, adibidez.

ASEGURUA

Novia Salcedo Fundazioaren LANaldi. Lanetan Blai!! programan parte hartzen duten ikasleek, jarduera garatzen den bitartean izan daitezkeen gertakariak babesten dituen aseguruia izango dute.

Eta, jakina, ez hartu beharrezkoa ez den arriskurik.



DBLO-LOPD

LANaldi. Lanetan Blai!!! programan parte hartzen duten ikasleek, programaren dokumentazioan eta hedapenean baino erabili ezin daitezkeen argazkiak egiteko baimena bete dute.

NSF-tik argazkiak edo bestelako euskarri grafikoak egiteko eta guri bidaltzeko gonbidapena egiten dizuegu, guretzat ezinezkoa baita jarduerak aurrera eramaten diren eszenatoki guztietan egotea.

Hala ere, kontuan izan behar da adin txikikoak direla, eta beraien datuak eta irudia kontu handiz erabili behar direla.

Programan izena emateko:

Hala nahi duen profesionalak, ondorengo web gunetik **eman beharko du izena** programan:

<http://www.noviasalcedo.es/lanaldi>

Bertan programari buruzko informazioa, jarduera aurrera eramateko eskuliburuak eta aurreko urteetako memoriak izango dituzu, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Mesedez, arreta berezia jarri ondorengo datu hauek sartzeko orduan:

- Topaketa burutuko den helbide zehatza. Hala ere, jardunaldian zehar irteerak egin ahal izango dira.
- Harremanetarako telefono zenbakia, ikasleak edo Novia Salcedo Fundazioak edozein gertakariren berri eman ahal izateko.
- Aukeratutako enpresako lan arloa eta lanpostuaren deskribapena, ikasleak ahalik eta informazio gehienarekin aukeratu ahal izateko.

Izena emateko fitxan ikaslearen informazio pertsonala jasotzen da, harremanetarako, ikaslearen hezkuntza orientazioari buruzko informazioa eta motibazio gutunerako atal bat.

Emandako datuak DBLO-LOPD izenekoan ezarritako irizpideen arabera landuko dira, eta ez dira erabiliko programarekin zerikusirik ez duten helburuetarako.

Eskatzen diren datuak sartu ondoren, Novia Salcedo Fundazioak, jardunaldia profesionalarekin igarotzeko diseinatu den prozesua aktibatuko du. Jarduera hori 2013ko azaroaren 4tik abenduaren 5era burutu beharko da.

Ikaslea profesionalarekin harremanetan jarri eta data zehaztu ondoren, profesionalak, baieztapen orrira joan eta data sartu beharko du sisteman:

www.noviasalcedo.es/lanaldiconfirmacion

Horrela, harremana gauzatu dela adierazita geratuko da, eta jardueren jarraipena hobetu egingo da.

Ebaluazioa –I. eranskina. GAZTEARENTZAKO GALDETEGIA.

LANaldi. Lanetan Blai!!! programaren ebaluazioaren galdetegia

Balora itzazu ondorengo kontzeptuak, X bat jarritz dagokion tokian.

	Erabat ez gustukoa/ Oso gutxi		Ez gustukoa / Gutxi		Ez bata / Ez bestea		Gustukoa/ Nahiko		Oso gustukoa/ Asko	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Balora ezazu programaren antolakuntza										
2. Balora ezazu programaren erabilgarritasuna .										
3. Jarduera lagungarri izan zait nire etorkizun profesionalari buruzko ideiak argitzeko.										
4. Zenbait gaitasun eta trebezia garatu ditut, sormena, berrikuntza, ariskuak hartzea, ekimena, planifikatzeko eta kudeatzeko trebezia...										
5. Orokorrean, pozik al zaude jardueraren nondik norakoarekin?										
6. Orokorrean, programa honek zure itxaropenak bete al ditu?										

Programa hau beste ikasle batzuei gomendatuko zenieke?

- ☐ Bai
☐ Ez

IRADOKIZUNAK (gehien gustatu zaizuna, gutxien gustatu zaizuna...)

Ebaluazioa –II. eranskina. PROFESIONALARENTZAKO GALDETEGIA.

LANaldi. Lanetan Blai!!! programaren ebaluazioaren galdetegia

Balora itzazu ondorengo kontzeptuak, X bat jarritz dagokion tokian.

	Erabat ez gustukoa/ Oso gutxi		Ez gustukoa / Gutxi		Ez bata / Ez bestea		Gustukoa/ Nahiko		Oso gustukoa/ Asko	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Balora ezazu programaren antolakuntza										
2. Balora ezazu programaren erabilgarritasuna .										
3. Zure ustez, programa honetan parte hartzea lagungarri izan da ondorengo helburuak betetzeko?:										
3.1. Ikaslearen proiektu profesionalaren garapena bultzatzeko.										
3.2. Helburu pertsonalak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren trebeziak lortzen laguntzeko.										
3.3. Enpleguarekin erlazionaturiko gaitasunak garatzea: sormena, berrikuntza, arriskuak hartzea, ekimena, planifikatzeko eta kudeatzeko trebezia,...										
4. Orokorrean, pozik al zaude jardueraren nondik norakoarekin?										
5. Orokorrean, programa honek zure itxaropenak bete al ditu?										

Programa hau beste pertsona/erakunde batzuei gomendatuko zenieke?

- ☐ Bai
☐ Ez

IRADOKIZUNAK (gehien gustatu zaizuna, gutxien gustatu zaizuna)

Mesedez, asko eskertuko genizuke aurrekoek gain, galdera hauetara erantzutea:

	Neurri txikian/ Oso gutxi		Nahiko neurri txikian / Gutxi		Ez bata / Ez bestea		Nahiko neurri handian/ Nahiko		Neurri handian/ Asko	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6. Zure ustez, zein neurritan da NSF gizartearentzat gero eta interes gehiago duten gaiak dinamizatzen dituen erakundea ?										
7. Zein neurritan ikusten duzu NSF gizartearen eraikuntzaren aldeko balioak sustatzen dituen erakunde gisa ?										